



EUSKARALDIA 2020

www.euskaraldia.eus

Eibartar hori:

Badator berriro ere Euskaraldia!!!

Aurten ere parte hartuko duzu, ezta?

Idatzi honen bidez, zuen entitatea gonbidatu nahi dugu Euskaraldian parte hartzera. Zuen enpresan edo elkartean euskarak duen egoeratik abiatuta, euskararen erabileran aurrera egiteko aukera ezin hobea izango duzue.

Oraingoan, gainera, berrikuntzak dakartza. 2018an hizkuntza ohituren aldaketan pauso garrantzitsuak eman ziren Euskaraldian (11 egun euskaraz), *ahobizi/belarriprest* dinamikarekin. Aurten, 2. edizioan, azaroaren 20tik abenduaren 4ra, entitateek (enpresa, elkarte, erakunde, ikastetxe, denda, taberna...) ere protagonismoa hartuko dute euren langile, bazkide eta kideen hizkuntza ohituretan eragiteko. Horretarako *ARIGUNEAK* antolatuko ditugu. *Zer da ARIGUNEA?* Euskaraz lasai aritzeko gunea.

Eibarren era guztietako entitateak dauzkagu, eta eibartarrok elkarrekin badaukagu indarra egoera zailetan aurrera egiteko: *#EibarrenBadakagu*; Eibarren euskara ere badaukagu, eta horrek batuko gaitu. *Euskeraz primeran!*

Parte hartzeko gogorik, asmorik... baldin badaukazue, jarri gurekin harremanetan:

PORTALEA eraikina
Bista Eder 10, 2. solairua
eibarrenakebai@gmail.com
943 70 84 44 (luz. 4201)

Urkizu Pasealekua, 11A
normalizazioa@etakitto.eus
943 20 09 18

Euskarak batuko gaituelakoan



#EibarrenBadakagu

